

JUAN ANTONIO LETAMENDIA «KIRIKIÑO» SARIAREN IRABAZLE

«Kirikiño» ipui sariketa «Joxe Proletario» titulua duen lanak irabazi zuen. Egilea: Juan Antonio Letamendia. Lehen-sariaz gainera aipamen berezia egin zitzaion Xalbador Garmendia, Anastasio Albizu eta Jose Basterretxea-ri.

Juraduko izan ziran A. Arrue, A. Irigoyen eta J. San Martin. Epaia 1967 urteko otsailean eman zan.

EUSKAL-HERRIKO BERTSOLARIEN AZKEN TXAPELKETA NAGUSIA DONOSTIAKO ANOETA FRONTOIAN 1967 URTEKO GARAGARRI- LAREN 11-AN

Uztapide atera zan txapeldun, Xalbador bigarren, Lopategi irugarren eta Lazkao-txiki laugarren. Auspook argitaratutako liburuan ikus diteke txapelketa honen berri zeatz eta meatz eta baita aldezaurretik egin ziran txapelketena ere.

AGUSTIN ZUBIKARAY 1967 URTEKO «TORIBIO ALZAGA» TEATRO SARIAREN IRABAZLE

Aurten «Toribio Alzaga» teatro sariaren irabazle Agustín Zubikaray Ondarroakoa izan da «Gizon on eta andre erre?» obragatik. Erabaki duen juradua Piarres Larzabal, Iñaki Beobide eta Gabriel Aresti-k osatu dute.

Agustín Zubikaray-ren nortasuna erakutsi beharrik eztago, oso ezaguna baita gure artean.

Sari au eta «Domingo Agirre» novela saria Bizkaiko Ahorro Kaxak sortuak dira Euskaltzaindiarekin bat eginda eta txandaka ematen dira, urte bakoitzean bat. Beraz, datorren urtean novela saria tokatzen da. Asmoa dago sari aukeruz jasotzeko —oraingoa amar milla pezeta izan da— eta oiñarriak libreago uzteko luzeerari dagoion kontuan.

Urrengo teatro sarirako, guñera, aurrentzako gaia eskatuko da. Zeatz jakiñeraziko dira oiñarriak.

1967 URTEKO «LIZARDI» POESIA SARIA

Juraduko ziran A. Arrue, I. Goikoetxea eta J. San Martin-ek, eldu ziran iru lanak ikusita, saririk ez ematea erabaki zuten.

1968 urtekora lanik batere etzan agertu.

MANUEL MATXAIN 1967 URTEKO «XENPELAR» SARIAREN IRABAZLE

1968 urteko martxoaren 29-an erabaki zuen juraduak urteroko sariketa nola eman:

Manuel Matxain-i lehen saria.

Jesus Lete-ri bigarrena.

Martin Oreja-ri irugarrena.

Gillermo Albizu-ri laugarrena.

Juraduko izan ziran Xabier Amuriza, Juan Garmendia eta Pedro Berrondo.